

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Lantziego Udaleko praktiketako langile lan kontratudunak izendatzea

2024ko urriaren 25ean onetsi eta ediktu taulan argitaratu dira egiturazko lanpostu hutsak me-rezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko prozesuko praktiketako izendapenak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan, jarraian zerrendatzen diren plazak betetzeko hautaketa prozesuak amaitu ondoren. Hori guztia bat etorritz 2022ko abenduaren 16ko 144. zenbakiko ALHAOn argitaratu ziren aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrekin eta 2023ko martxoaren 9ko BOEn (75. zenbakia) argitaratu zen deialdiaren laburpen batekin.

Aztertu dira lanpostuak betetzeko deialdiko lehiaketa epaitu duen epaimahai kalifikatzaileak proposatutako behin betiko sailkapenak eta izangaiek aurkeztutako dokumentazioa.

Jarraian datozen lehendakaritza ebazpenen arabera, honako langile hauek izendatu dira probaldian, eta Lantziegoko Udaleko lanpostu hauek atxiki dira:

IZENDAPEN EBAZ. ZK.	PLAZA	PRAKTIKETAN IZENDATUTAKO LANGILEAK	EPEA
131	Zerbitzu askotarako behargina 14 maila Hizkuntza eskakizunik gabe	Pedro Maria Miranda Arana	3 hilabete
132	Irakurketa agentziaren arduraduna Irakurketa Agentzia 15 maila Hizkuntza eskakizuna: 2	Pilar Martes Ripa	3 hilabete

Izendapenak behin-behinekoak dira, probaldia edo praktikaldia egin behar baita, 15. oinarrian ezarritakoaren arabera. Izendapen horiek ebazpen honen egunetik aurrera izango dituzte administrazio ondorioak. Lanpostuen atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte, deialdiaren 15. oinarriaren arabera. Aldi horrek irauten duen bitartean, praktiketako langile lan kontratudun izendatutako pertsonak normaltasunez beteko dituzte beren egitekoak, eta dagozkien ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute. Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario eta langile lan kontratudun finko izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

Praktiketako tutorea Izaskun Garcia Zorzano idazkari-kontuhartzailea izango da.

Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez ezarritako zin egitea edo hitzmatea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko.

Publizitate ondorioetarako, dekretuak osorik argitaratu dira erakundearen ediktu taulan, eta interesdunei jakinarazi zaizkie. Ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da hilabeteko epean. Epe hori amaitu ondoren, administrazioarekiko auzi errekurtsoa

baino ezingo da jarri, edota, hala badagokio, berrikusteko errekurtso berezia (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124., 125. eta 126. artikulak).

Lantziego, 2024ko urriaren 25a

Alkatea

ITZIAR DE ALAVA MARTÍNEZ DE ICAYA